

Donazaharren, 2017ko maiatzaren 22an egina

## ETXE-HONDARKINEN BILKETA SISTEMAREN ERREFORMA

Garazi Baigorri Lurralde Eremuak bere hondarkinen bilketa sistemaren erreforma abian ematea erabaki du. Zerbitzuaren antolaketa berriaren helburua hondarkin kopurua apaltzea eta zerbitzuaren kostua egonkortzea da. Erreforma hau ekoizpen indibidualaren arabera prezio akuilagarriaren plantan ezartzea prestatzen ari da. **2018 urte hastapenean, biltzeko moldea aldatuko denez gure usaiek ere aldatu beharko dira!**

Erreforma honek ondoko helburuak ditu:

- Etxe-hondarkinen gutitzea
- Kudeaketa kostuak menperatuz zerbitzuaren kalitatea egokitzea
- Bereizketa selektiboa emendatu eta etxe-hondarkinak gutitu, berotegi efektuko gas hedatzearen apaltzeko helburuak betetzeko.

-> Helburu hori betetzeko, lurraldeko herritar eta profesionalak **balioztatze gehiagori eta birziklatzeari buruz** joan daitezten sutatuko da. Ondorioz, nazio mailako eta Bil ta Garbiren helburuen betetzean parte hartuko dugu.

-> Horretarako, hondarkin ekoizle bakoitzaren **fakturatze indibiduala** plantan emanen da. Alabainan, gaur egungo zerbitzu publikoa finantzatzea ahalbidetzen duen Etxe-hondarkinen Bilketa Zerga (EHBZ), etxebizitzaren edo bastimenduaren alokatze balioaren arabera kalkulatu da eta ez egiazko hondarkinen ekoizpenaren arabera. Ingurumenaren Grenelle-ak fakturatzearen egiazko indibidualizatzea ahalbidetuko duen finantza baliabide sustatzailea plantan ezartzea aurreikusi du.

Elkargoko Kontseiluak bi kudeaketa molde hautatu ditu:

- **Izpura, Baigorri, Donibane Garazi eta Uharte-Garaziko herri barneetan**, etxe-hondarkinendako eta birziklatzen diren hondarkinendako (ontzi indibiduala + posible izanen delarik etxez etxe bilduko diren zaku horiak) bilketa indibiduala.
- **Gainerateko 26 herrietan + aipaturiko 4 herrietako bazterretan** borondatezko ekarpena. Etxe-hondarkinendako erdi lurperaturiko edukiontziak emanak izanen dira herrietan.

Gehiago dena, zutabe bidez egiten den paper, paketatze, berin, ehun/jantzi, pila bilketa atxikia eta hedatua izanen da. Beste hondarkin guztiak hondarkintegira eramanak izan beharko dute, isunarik ez ukaiteko. Paraleloki, zerbitzu bereziaz baliatzen diren hondarkin kopuru gehien ekoizten duten profesionalendako zerga berezia ezarriko da. Gisa horretan, zerbitzuaren finantzamenduari egiten dioten ekarpena galdeginiko zerbitzuari lotua izanen da.

Dispositibo berri honetan:

**Bilketaren helburu den etxebizitza indibidual eta/edo egoitza profesional bakoitza** etxe-hondarkinendako ontzi batez eta paketatzeendako zaku horiz urririk hornitua izanen da. Etxe-hondarkinen ontziendako, bilketa astean behin eginen da eta bi astetik paketatzeendako.

**Atez ateko zerbitzurik baliatuko ez duten etxeendako**, etxe-hondarkinak eta paketatzeak bilketa guneetan utzi beharko dituzte.

Ontzi indibidualak baliatuko dituen eremua ahal bezain ontsa dohatzeko gisan atez ate egitekoa den inkesta bat aurreikusia da. EHEko inkesta egileak zure etxera edo lantokira joanen dira, **2017ko maiatzaren 29a eta agorrilaren 31 artean**, zure deitura-helbideen eta zure etxearen konposaketa egiaztatzeko eta xehetasunak emateko.

Inkesta egileei harrera onena emateagatik aitzinetik eskertzen zaitugu!